

GARBIÑE MENDIZABAL MENDIZABAL

MEREZI DU JARRAITZEA!

Asko esanda dago euskara batuaz, Arantzazuko 50. urteurrenekoa dela eta. Ez da erraz agortzen den gaia, ordea. Bakoitzak dauzka bere bizipenak hizkuntza estandarraz, eta hortik abiatu nahi dut lerro hauek idazten.

“¿Nola idatzi euskeraz? Etxaniz`tar Nemesio Apaizak Egiña (Itxaropena argitaldaria, Zarautz, 1950)”. Horixe zen gure aitonak baserrian zuen liburutxoaren izena. Liburutxo diot, ez baitzen liburu izatera iristen, paper marroizko batean, gorritz idatzitako titulua du eta ez ditu 40 orri izango. Garai hartan, bazen kezka ordura arte gutxi idatzitako hizkuntzan nola idatzi behar zen.


Gauza horiek denak debekatuta zeuden haurtzaro hartan bizitzea egokitu zitzaidan, gutxi edo batere pentsatu gabe gerora kontu horietan murgilduta egongo nintzela nire lanbidea dela eta. Izan ere, ni baino gazteagoa baita euskara batua. Elkarrekin hazi izan garela esan dezakegu gure belaunaldikook. Batzuek izan zuten ikastolan ikasteko aukera; beste batzuek, ordea, etxean ikasteko zoriona izan genuen, baina eskolan gaztelaniaz alfabetatu ginen, batxilerra bukatu arte, behinik behin. Handik aurrera, komeriak!

Zer ikasi behar nuen galdetu zidan bizitzak eta nik, zalantza izpirik gabe, Euskal Filologia ikasiko nuela erantzun. Eta hor noa ilusio, xalotasun eta atrebentzia guztiarekin unibertsitatera,

euskarazko ikasgaiak ikastera. Euskaraz alfabetatu gabeko gazte bat, hitz egiten zuen bezala idazten zuena euskaraz. Beste ikaskide dezente ere antzera zebilen. Pixkanaka, irakurriz, ikasteko gogoari esker alfabetatu ginen asko eta asko, eta irakasle saiatuak eta laguntzaileak genituelako.

Urruti daude oroitzapen haiek, baina bizirik. Bestelakoa zen giroa. Orduan ez ginen hainbeste mugitzen gure herri edo inguruetatik, gure euskara egiten genuen. Debagoienan hitz egiten zutena nekez entzuten genuen, esate baterako, eta nola ulertu inguru horretako hizkera? Gaur egun, badi-tugu komunikabideak, herri batetik besterako tar-teak txikiagoak egiten zaizkigu...

1980. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan eratu zen lehen gobernuan, Pedro Miguel Etxeniketik, Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza sailburu eta bozeramale izan zenak, urrats sendoa eman zuen arte. Hau da, eskoletan euskara batua ofizialtzeko erabakia hartu zuen arte. Sabino Arana Fundazioak antolatutako beste jardunaldi batean esan nuen bezala, *“ez ginatke euskararen erabileraren erronka aipatzen eta erantzun bila arituko, euskarazko eskolaren aldeko politika erabaki izan ez bagenu orain dela lau hamarkada”*. Politikan badaudelako zeregin estrategikoak, etorkizunerako bidea urratzeko modukoak, baina ausardia behar da eta aurreikuspeneko talentua, gauzen etorkizuna nondik norakoa izango den sumatzeko dohain berezia. Hortxe bi mugarri: bata, orain 50 urte Euskara Batuaren inguruan hartutako erabakia. Eta bigarrena, berriz, euskara batua ofizialtzea eskoletako hizkuntza ardatz.



Orain 50 urte, Arantzazun elkartu ziren aditu haiek guztiek pentsatuko al zuten gaur egun lortu ditugunekin? Bururatuko al zitzaien halakorik? Beraiek asmatu eta temati antolatu zuten tresna hark zer lor zitzakeen amestuko al zuten? Eta zer esango zuketean gaur egun ikusiko balute? Mila bider merezi izan zuela esango lukete. Miloi bat bider balio izan zuela esango genieke. Arrastorik gabe desagertzeko bidean zegoen hizkuntzaren eskura jarri zuten tresnarik bikainena. Bete-beteen asmatu zuten! Bejondeiela, beraz! Nire omen txikia honako hau!

Geroztik izan dira hizkuntza hobetzeko aha-
legin aparta egin dutenak, adituak, itzultzaileak,
irakasleak, hizkuntzalariak, bertsolariak, hiztunak.
Bihoakie nire txaloa horiei guztiei ere bai. Sekula-
koa izan da euskara batuak egin duen ibilbidea!
Handia lortu duen maila eta aitormena. Pozik ego-
teko modukoak, herri bezala. Ondo dago gertatu-
koaz gogoeta egin eta hitz egitea, gure aurrekoek
egin eta lortu zutena goraiatzeari. Baina ezin dugu
atzera begira geratu. Iraganera begiratu bai, geroa
eraikitzeko akuilu izan dakigun, ez ordukoan lokar-
tzeko.

Euskara batuak erakusten digun bide nagusia
politikan hain zail egiten zaigun horixe da: bata-
suna nahi izatea, bilatzea eta lortzea. Aldi berean,
ezinbestekoa hizkuntzak aurrera egiteko, euskara
mintzatutik euskara idatzira. Hizkuntza Herriaren
izatearen muinean dagoenez, oinarrian, politikaren
esanahi jatorra eskuratu behar dugu euskararen-
tzat, bat egitea eskatzen duelako euskara batuak,
euskara bizitzeko beharrezkoa baita.

Horri lotua dago, nire ustez, hasierako
urteetan eta bide erdian esandako batzuk. Koldo
Mitxelenak Arantzazuko txostenean dioena esanda
dagoen arren, gogora ekarri nahi dut. Orain berro-
geita hamar urte “ezinbestekoa, hil edo bizikoa” jo
zuten “euskara batasun bidean jartzea. Haur eta
gazteei euskaraz irakasten bazaie -zioen hizkun-
tzalari errenteriarrik-, eta euskaraz irakatsi behar
euskara biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei
batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar
dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat,
euskara idatziarena, izkribuzkoarena da. Eta, eus-
kara idatziaren barrutian, irakasle lanean dugu
beharrenik batasun hori, irakurlearen atseginerako
egiten den literatura «ederrean» baino areago”.
Orduan beharrezkoena eskolaren premiei erant-
zutea zela erabaki zuten. Orain, lehentasuna non
dagoen erabakitzea dagokigu. Batek baino gehia-
gok komunikazioaren barruti zabalari jarri dio arreta,
besteak beste, komunikabideen garapenagatik eta
belaunaldi gazteekin daukan zerikusiatatik. Hala
iritziz gero, zer egin eta nola pentsatu eta erabaki
beharko da, euskalgintzan ari direnak bilduz.

Iruditzen zait egin beharrezkoa egiteko kon-
tuan izan behar dela Ibon Sarasolak orain ia
hogeita hamar urte esandakoa: “euskararen duin-
tasunarenganako sentiberatasuna” berreskuratu
beharra zegoela ohartarazi zuen. Ados nago. Eus-
kara batua egiteko, konbentzituta nago apustu
hura egin zutenek pentsatzen zutela gure hizkun-
tza ez zegoela nolana erabiltzerik, gure Herria-
ren duintasunaz ari garelako. Euskarak herri gisa
batzen gaitu barru aldera eta kanpora, munduko
beste herrietatik, Espainiatik eta Frantziatik eta gai-
nerakoetatik, bereizten gaitu. Ez da edozer gauza
Euskadi egiten eta gure Herria iraunarazten duena.

Komunikazioaren garapenarekin, euskara
batuaren erabilera finkatu behar bada, uste dut
duintasun kontua oso kontuan izan behar dela,
euskara Euskadiko nazio hizkuntza delako -esa-
nahi jator eta zabalean ulertuta euskal aberriaren
izena-. Euskal Erkidegoak, autogobernua medio,
herriarentzat sortutako irrati-telebista publikoak
ezinbestekoak izan dira euskara aurrera aterat-
zen laguntzeko -geroztik sortutako hedabideak
ere aintzat harturik- eta egunero-egunero milaka
ikus-entzulerengana iristeko duten ahalmenagatik
eta jendeagan, norbanako nahiz talde gisa, duten
eraginagatik ez dute inoiz galdu behar euska-
rari erabilera duina emateko sentiberatasuna eta
zentzua. Honekin esan nahi dudana da, kontuz
ibili beharra dagoela euskara erdalduntzearekin,
euskara ulertzeko gai izateak ez baitu esan nahi
gure hizkuntza gaztelaniaren menpeko egitea, ezta
frantsesaren menpeko ere. Ibon Sarasolari askotan
entzun izan diodan bezala, Iparraldeko euskaldu-
nek espainiera jakin behar ote dute batzuen eus-
kara ulertuko badute. Hegoaldekoak ez gara asko
konturatzen. Agian jabetuko ginatete frantses-
tutako euskara entzungo bagenu etengabe, eta
erreferentziak, gaiak eta pertsonaiak ere, Pariskoak
balira, alegia, arrotzak.

Euskara batua behar-beharrezkoa izan dugu
eta dugu, ez dago zalantzarik, euskaldun izaten
jarraitzeko. Konbentzituta nago euskara batua
sustatzeko garrantzi-garrantzitsua dela herri sena
sustatzea, gure herriko historia iragana eta gaur
egungoa ezagutzea, gure aurreko euskaldunen
berri izatea, biharko historia egiteko eta etorkizu-
nean ere euskaldun izateko. Horrela, esan deza-
kegu lotsarik gabe merezi duela euskara egitea eta
eragitea. Merezi du euskaldun izatea. Merezi du,
bai horixe, honetan jarraitzea!